



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ALTZIBAR

ZENBAGARREN SAIOA: 6

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-04	19:30	21:10

BILDUTAKOAK: 14

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Eneritz Arbelaiz, Iosune Cousillas, Iñaki Pikabea, Jon Del Olmo		
Herritarrak:	Euskaraz: 15		Elebitan: 8
	Emakumezkoak: 17		Gizonezkoak: 6
	<30 urte: 1	31-50 urte: 7	51-65 urte: 4 >66 urte: 11

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Ez da galderarik egon.
Aurrekontuak 2019	Ez da galderarik egon.
Auzoa	<p>Altzibarren orain arte ez dela ezer egin eta legealdi honetan asko egin dela aipatu da. Erantzun da egoera ekonomiko zailtan gauzak egitea ere zaila izan dela. Hiru urte hauetan aurrekontu aldetik aukera egon da eta gauzak egin dira.</p> <p>Agerrealde 6tik gora igotzeko eskaileretan baranda behar da. Ereku hori pribatua ote den begiratu beharko da.</p> <p>Agerrealdeko urbanizazioa egoera txarrean dagoela aipatzen da. Beheko auzoa ere egoera txarrean dago. Planteamendua da beheko zatiarekin hastea. Gero goiko zatia egingo litzateke, beste fase batean. Orain proiektua idazten hasiko gara, obra ez dakigu noiz egingo den. Beraz, orain behar diren partxeak egin beharko dira. Proiektua idatzi ondoren jakingo dugu zein aurrekontu daukan.</p>

Udalak Aldundian eragin ote dezakeen aipatzen da autopistaren peajea. Oiartzundik irtetea edo sartzea oso zaila da, kolapsatua dago. Eskualdeko industria hemen dago, guztiak hona datoz, eta denek ordaindu egin behar dute. Errenteria 2 kilometrora dago eta ez dute ordaintzen. Erantzun da orain arte ez da kudeaketarik egin honen inguruan, baina egoki ikusten da. Lanbarrenek ere berez irteera propioa eduki beharko lukeela aipatzen da.

Lintzirinen egin den obra oso ongi dagoela aipatu da eta eskertu egin da.

Frontoirik ez duen auzo bakarra dela aipatu du bizilagun batek. Aipatu du kirol instalazioentzat Cadarsoko eremua egoki izan litekeela. Erantzun da Cadarsoko kutsadura mailaren azterketa egitean jakingo dugula zer egin daitekeen. Udalean ere frontoia bertan egitea egoki ikusten da. Eremu horren irtenbide integral bat pentsatu beharko dugu.

Azkenaldian trailer asko ari dira sartzten Olalden eta Done petri hasierako balkoia jotzen dute. Trailerrak gero buelta eman behar izaten dute hor. Trailerrak ez sartzeko zerbait beharko litzatekeela esan dute. Gainera inguruan dauden piboteak direla eta, espaloira ere ezin dute igo buelta emateko. Aipatu da galiboa jarrita ere trailerrak sartu egiten direla, Lartzabal etxadian hori gertatzen zaigu. Olaldeko sarreran gehiago ikusten den seinalea jarri beharko da. GPSaren arazoa baldin bada, Google-i eguneraketa egiteko eskatu beharko litzatekeela ere proposatzen dute auzotarrek.

Gauza asko egin direla aipatu da, urbanizazioaren proiektua ere egoki ikusten da. Hala ere, Alzibar, Gipuzkoako herri asko baino handiagoa da eta behar asko dituena. Elizalden jarri beharrean hemen ere zerbitzuak jarri daitezkeela aipatzen da. Auzoko Olatxo lokalaz gain, ikasle gela edo agian beharko litzatekeela, bizikletak gordetzeko eremu bat... Hurrengo plan orokorrean edo hori kontuan hartu beharko dela aipatzen du auzotarrak.

Klarene plazan autokarabana asko daude eta orain bi erremolke ere badaude. Batzuetan aparkatzeko arazoa egoten da. Autokarabanen arazoa Oiartzun guztian dagoela erantzun da. Irtenbide bat aurkitu beharko da eta mugatzen hasi beharko da. Aipatu da turismoa ere erakartzen duela. Beraz, bi gai daude: autokarabana duten herritarrak non aparkatzen duten eta horrek eragiten duen aparkatzeko arazoa alde batetik, eta bestetik, hartzen den neurria turistentzat kaltegarria ez izateko. Cadarson turismorako aparkaleku moduan aukera egon litekela erantzun da. Arautu beharra egongo da aurrera begira guzti hau. Auzotar batek aipatu du herri batzuetan herriko autokarabanentzat aparkatzea baimentzen duen sistemak badituztela. Andoain aipatu da.

Kajeroa eskatu dute.

Olaldeko lokal hutsen inguruan galdetu da. Aldundiko nekazal bulegoak eta Behemendi datozela aipatu da. Besteak lehiaketara aterako dira.

Trafikoari dagokionez, Eroski aurrean kotxeak “doble filan” jartzen dira eta pasatzeko gaizki egoten da oso maiz. Arratsaldeko 18:30etatik aurrera izaten da egoera hau. Udaltzainei abisatu beharko da.

Done petriko petrilla larrak hartua dauka. Teresane ondoa ere oso zikina dago, arratoiak ibiltzen dira. Hortik bide bat zegoen Artikutzako bidera. Gero urbanizazioko obrarekin ere txukunduko da. Bitartean garbitzeko eskatu da.

EPAko klaseengatik kexatu dira. Erantzun da zerbitzu hori ez duela Udalak ematen. Ikusiko da ea kexa transmititu daitekeen Hezkuntza sailera.

Xorrolako geltokian kristal bat falta da.

Agerrealde atzean belarra oso gutxitan mozten dute eta oso luzea egoten da.

	<p>Olaldeko jardinak eta Cadarso alderako gunea txakur kakez josita dago. Kartel batzuk jartzea proposatu da.</p> <p>Eskertza herri mailan eta Altzibarren lana egin delako.</p> <p>Olalden atzeko jardinean dauden mahaien inguruan paperontzirik ez dago eta gazteak bertan asko egoten dira. Olalde 6-7an ere beharko litzateke.</p> <p>Olako zubiko txoko horretan ere ez dago paperontzirik eta jende asko ibiltzen da eremu horretan.</p> <p>Aipatu da bidegorrian ere paperontzi gutxi daudela. Erantzun da bidegorrian leku askotan ezin dela jarri, garbitzera ere leku askotatik pasa beharko litzatekeelako. Beraz, geratzeko gunek diren lekuetan jarrita daude: adibidez komunen ondoan, tronpeoko bidegurutzean...</p> <p>Bidegorriko zuhaitzen izenekin txartelak jartzea eskatu da berriro.</p> <p>Olaldeko bankoak lirdinga dutela esan da.</p> <p>Olalden tirolina jartzea proposatu da.</p>
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,94
bilera ongi gidatu da	8,78
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,33
Auzotar kopurua	6,72
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,89
Saioa probetxugarria izan al da?	8,69
Egunaren egokitasuna	9,07
Orduaren egokitasuna	8,93
Lekuaren egokitasuna	9,67



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



Batezbestekoa	8,56
----------------------	-------------